


TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

1999ko urria - 29. zenbakia

SAN JOAN DOLOZAK-99

SEEDORF BAKION



A
L
K
A
R
R
I
Z
K
E
T
E
A



A
G
U
R
T
Z
A
N
E
O
R
M
A
Z
A

AEK EGUNA SARAN

JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

Neumatikoak

Gas-tutuluak

Orioa aldatzea

Balazta zapatak

Beherapen ederrak

Artza Alde, 8
Tfnoa.: 94 619 48 97
48130 BAKIO



GOTZON

Jatetxea

Benta Alde, 135
Tfnoak.: 94 619 40 43
94 619 43 30
48130 BAKIO

Itsasargi Kafetxea

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 47 86
48130 BAKIO



Txomin taberna



HERRIKO KIROLAREN ALDE
Goitisolu Alde, 34 - Tfnoa.: 94 619 40 70
48130 BAKIO

UR-ZABAL TABERNEA

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 43 05
48130 BAKIO



Maria Jesus BIDASOLO MARLOI'ko JANARIDENDA



Benta Alde, 169 - Tfnoa.: 94 619 30 06
(eskukoa) 606 50 68 26 - 48130 BAKIO



PATXI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Benta Alde, 171
Tel. eta Faxe: 94 619 40 08
(eskukoa) 606 45 09 25 - 48130 BAKIO

BERBAURREA

Herri nortasuna jagotekotan, herriko hizkuntzea edo berbetea jagotea askok uste leiken baino leba handiagokoa da. Gurea dan lako herrian, oraindikarren handiagokoa. Egon be, gure herrian, bertoko berbetea sano baztertuta dago herriko bizitza sozialean. Arlo batzuetan aldeko ahalegin handiak egin arren be.

Goiko bazterkeria amaituteko sasoi heldu jaku. Zahar eta gazteen artean berbetearen katea apurtu bada be, geure eskuetan, zeuen eskuetan dago hori konpontzea. Zaharrek, zeuen berbetea irakatsi gazteei. Gazteek, zaharren berbetea ikasi eta erabili. Betiko euskereak daukaz hizkuntzearen grazia, kalitatea eta dotoretasuna. Bakion euskerearen katea apurtu bada, dalako "hizkuntza transmisinoa" moztu egin dalako izan da. Argi dago, euskerearen osasuna Bakion hobetu egin behar dogu. Hori eskoleak edo ETBk ez deuskue konponduko. Hori familietan eta lagunartean konpondu leiteke bakarrik. Gu geu ahaleginduten bagara, jakina.

TXIRRITXOLA**TXIRRITXOLA-29**

1999ko urria (hiruhilabetekaria)

ARGITARATZAILEA

Bakioko Euskera Zerbitzua

ERREDAKZINOIAJoseba Terreros, Gorane Oleaga,
Unai Beitia eta Iniaki Martiartu.**LAGUNTZAILEAK**Etor Duoandikoetxea, Jose Mari Ugalde,
Anartz Ormaza, Itxaso Urazurrutia, Maria
Santisteban, Haitz Uriarte, Larraitz Uriarte,
Jonjo Agirre, Garikoitz Etxebarria,
Ziortza Garai eta Ainara Madariaga.**ARGAZKIAK**Anartz Ormaza, Jorge Busturia,
Kike Martínez eta Iniaki Martiartu.**HELBIDEA**Bakioko Kultura Etxea
Urkizaurralde, 28
48130 BAKIO
Tfno.-zkia.: 94 619 40 01 / 619 33 69
Fax-zkia.: 94 619 31 18**ALE KOPURUA:**

700 ale

LAGUNTZAILEA

Bakioko Udala

IRARKOLEAGráficas Gaubeka
Tfno.-zkia.: 94 625 02 74
Fax-zkia.: 94 625 52 54
48300 GERNIKA-LUMO**TXIRRITXOLA**

Bakioko Euskera Zerbitzuak babestutako aldizkaria

GAIA

ZER-NON

ORRIALDEA

Aurrealdea: Zumetzagako San Migel 99	1
Iragarkiak	2
Agurra	3
Berbetan: Agurtzane Ormaza sexologoagaz	4
Zer deritoxozu?: Zelan kendu jaietako ostea?	7
Eritxia	8
Zer barri?:	
-AEK eguna eta ikastaroak - iragarkiak	9
-Itsas ibiltokiko beharrak	10
-Baserritarren museoa	10
-Ojaorta errekea bideratuteko asmoa	10
-Bermeo-Bakio autobusaren orduak	11
-Bakio tropikala?	11
-Aparejadore barria Bakion	12
-Bakio bizkortuteko asmoa	12
-Txakolinaren ingurukoak	12
-Omenaldia udaleko izandakoei	13
-Bakion erosteak	13
-Euskal presoen alde	13
-Ipuin kontalaria	14
-Udaleku irekia	14
-Kultur Etxeko ikastaroak	14
-Ardao ikastaroa	15
-Udako erakusketak Bakion	15
-Euskerearen eguna-99	15
-XII. idaz lehiaketea	15
-San Joan Dolozak-99	16
Herri jaiak: Andra Mari eguna	18
Gai berezia: Udalbiltza	19
Bertso afaria Arimunen	20
Berbetan: Seedorf jokalaria gaz	21
Bakio Berbarik Berba liburua	22
Herriko alkarteak euskerearen alde	22
Turismo Bulegoko beharginen eritxiak	23
Baserrria: Muxikene	24
Zuhur ibili	25
Zaharrak barri	26
Herri jaiak: San Miguel eguna	27
Euskerea: Bakioko euskerea-7	28
Taldeen txokoa:	
-Gurasoen Alkarteagaz alkarrizketea	30
-Bakioko Football Taldea	30
-Bakioko Abesbatza	30
-ITXAS-ALDE	30
-Zuzenketea	30
Kultura leihoa:	
-Ipuina	31
-Bakioko liburutegiaren txokoa	31
-Eritxi kulturala - iragarkia	32
Danetarikoak: datozanak - barregaiak - jakingarriak	33
Ezetz jakin	34
Iragarkiak	35
Atzera begira	36

TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitakoen esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

SEXUAREN GANEAN

Azken aldion, komunikabide guztietan egunean-egunean entzuten doguz sexuaren inguruko azaleko eritxi eta iruzkinak. Hori dala eta, arlo horretako profesional batek berba egitea oso gai aproposa izan eitekela pentsatu genduan. Halan, Argurtzane Ormazagaz hartuemonetan paratu eta gai honen inguruko alkarrizketa egin geuntson. Izan be, Argurtzane Psikologiako lizentziatura eta Sexologiako masterra eta Doktorego programa eginda eukiteaz aparte, "Biko Arloak" sexologia bulegoan egiten dau behar eta Sexologiako Profesionalen Estatuko Alkarteko zuzendaritza batzordeko idazkaria da. Beraz, guztiz pertsona egokia hainbesteko interesa sortzen dauan gai honen inguruan berba egiteko.



TX: Sexologoa zaitugu eta Bilboko "BIKO ARLOAK" izeneko sexologia bulegoan egiten dozu behar. Hori horrelan izanik, zelan definituko zeunkez sexua eta sexologia?

AGURTZANE: Gaur egunean, sexua eszena erotikokaz lotzen dogu. Eszena horreetan, gehienetan, gizon bat eta andra bat egoten dira, alkarri zirriak egiten koitora eta, era berean, orgasmora ailegatu arte. Eta horixe sexu jokaera bat baino ez da, hedabide eta kulturaren bitartez jendeari ailegatu jakon irudia. Sexologian, ostera, zientzia dan aldetik, makina bat kontzeptu nahastu egiten dira: alde batetik, sexua, ze gizakiak sexudunak gara, hau da, sexu batekoak — andrak — edo besteakoak — gizonak — eta, horrelantxe garatzen gara hainbat prozesuren ondorioz (neurologikoak, genetikoak, hormonalak, biografikoak, soziologikoak, psikologikoak...). Beste alde batetik, sexualitatea bera daukagu, hau da, zelan bizi dogun andra edo gizona izatea: hartuemonak, gorputza, desioak, bildurrak, jarrerak, lotsak... Beraz, sexologia sexua ikertzen dauan zientzia da, andra edo gizona izatea bere osotasunean aztertzen dauana.

TX: Esaiskuzu mesedez zeintzuk diran gehien tratatu behar izaten dozuzan arazoak.

AGURTZANE ORMAZAGAZ BERBETAN

AG: Kontsultan, egia esan, danetarik daukagu eta horren adibidea da gure bezeroak edade guztietakoak izatea. Adinaren arabera zentroan euki dogun pertsona gazteena hamar urtekoa izan da eta zaharrena, ostera, 85ekoa. Dana dala, bezero gehienen edadearen batez bestekoa 40 urtekoa da. Era berean, gauzak aldatu egiten dira kasuen arabera, baina batez be bikote arazoak tratatzen doguz. Pentsatu behar dogu arazorik gehienak hartuemonetan agiri dirala.

Halan da ze, lantzen doguzan zailtasunek zerikusia dauke eguneroko bizitzagaz: ezin ulertu gure bikotekideari, desio arazoak, komunikazio gaxtasunak, bildurrak, lotsa, gizona zkoen kasuan ere ezin falta edo isurketa goiztiarra, eta andrazkoen kasuan orgasmora ailegatzeko zailtasunak edo baginismoa (gauza ez izatea bagina barruan ezer sartzeko) eta abar.

Dana dala, aitatu gura dot gure bizitzan mota honetako problemak guztiok daukaguzala momentu baten edo bestean eta behin baino gehiagotan. Horren zergaitiak asko dira: beharbada gure bikotekideagaz ondo ez gagozalako, bildurrak, sexu hartuemonak ez diralako geuk gurako geunkezanak, lan zein familia arazoak daukaguzalako, buelta-bueltaka dagoalako geure burua eta ezin dogulako momentua gozatu, alboan daukagun pertsona une horretan gus-tatzen ez jakulako...

Orduan, gorabehera horreek arazotzat hartzen doguzanean, sexologoarenera joan behar da. Eta egoera edo arazo horreek, sarritan, bestelako posibilitateak, gauzak... aztertzei aukera emoten deuskue eta aukerok aprobetxatu behar dira geure burua hobeto ezagutzeko eta bizitzeko.

Azken baten, gure beharra bikotekideen arteko hartuemonak lantzea da. Batzuetan, hartuemonak aberastu eta hobetzeko, alkarregaz jarraitzeko edota, beste batzuetan, bikotea banantzen laguntzeko. Azkenengo kasu honetan bitartekaritza lana egiten dogu banaketa hain larria eta latza izan ez daiten. Halan da ze, prozedura guztia bulegoko abokatuaren alkarlanean egiten dogu.

TX: Bikotekideen arteko hartuemonetan, komunikazio falta zenbaterainokoa izaten da arazo?

AG: Lehenengo eta behin, esan behar hartuemonetan ez komunikatzea ezinezkoa dala, beti zeozer komunikatzen dogu eta, adibidez, gure lagunagaz barbarik

Sexologia sexua ikertzen dauan zientzia da, andra edo gizona izatea bere osotasunean aztertzen dauana.

egiten ez dogunean. Horrek zeozer esan gura dau, beharbada ez dogu ezer be esaten, baina isiltasunak be bere arrazoia eta edukinak daukaz.

Askotan, gertatzen da ez garala zer gura dogun edo zer ez, zelan gura dogun edo zelan ez, azaltzeko gauza. Egoera batzuetan, ganera, ezetza emon arte, ez dogu beste biderik aztertzen. Pentsatzen dogu ate bat baino ez daukagula, eta zabaltzen dogunean, edozertarako prest gagoz, baina ixten dogunean, dan-dana

Hartuemonak landu egin behar dira ortuan egiten dan moduan, erain eta erain fruitu onak atarateko.

zarratu egiten dogu. Beste batzuetan, pentsatzen dogu gure bikotekideak asmatu egin behar dauala zer gura dogun eta zer ez, guk ezer be esan barik, eta askotan berak ez daki, eta hortxe hasten dira arazo batzuk. Besteetan, norberak zeozer azaldukeran, norberaren bizi-penetik emoten dau azalpena, baina besteak bere bizipenetik ulertzen dau. Hori dala eta, sarri hemen be zailtasunak eta txarto ulertuak topatzen doguz. Bestalde, sarri-sarri problemaren ganean berba lar eginkeran, arazoa handiagotzen dogu, problema barruan gabilzalako eta kanpotik aditzen ez deusogulako.

Dana dala, bikote bakotxa mundu bat da eta bere bidea jorratu behar dau. Hori kontuan hartuta, aberasgarria da norberak jakitea zer gura dauan eta zelan, besteari jakinarazotea, norberaren burutazinoak eta sentimenduak azaltzea, ahaleginak egitea bestearen tokian paratzeko eta gure gorputza erabiltea bestea bereganatzeko edota norberaren bildurrak eta desioak azaltzeko. Hartuemonak landu egin behar dira ortuan egiten dan moduan, erain eta erain fruitu onak atarateko, ortuak berez ez dau-eta askorik emoten, lurra ona izan arren.

TX: Gizarteak gaur egun indibidualismorako daukan jarrera igarri egiten da sexurako jokabideetan?

AG: Indibidualismo terminoa bueltakabueztaka dabil azkenengo 30 urteetan, eta nik ez dakit zer esan gura dogun berba hori erabilikeran. Sexualitate munduan gauza bat argi dago, Atapuercako gizaki arotik hirugarren milurtera arte alkarregaz

egoteko grina, desioa eta interesa daukagu, hau da, gaur egun lehen lez beste pertsona batez egoteko grina daukagu eta horrexek batzen gaitu. Beharbada, gaur egun, teknologiak makina bat aukera emoten deusku geure bakardadetik ez urteteko. Guztiagaz be, gizakiok jendea ezagutzeko desio handia daukagu eta berori asetzeko jendea behar dogu. Orduan, nahiz eta Internet zein telefonoz hartuemonetan paratu, bestaldeko pertsonak beraren buruan badauka gure gorputzaren irudi bat. Dana dala, inoiz pertsona batzuk teknologia erabilten dabe euren mundutik ez urteteko. Horrelakoetan, nortasuna eta izakera ez dira kanpora zabaltzen ez eta aberasten be. Horren ondorioz problemak sortzen dira.

TX: Orduan, zuk esandakoaren arabera, zelan ulertu leiteke Interneten gehien bilatzen dan berba "sex" izatea?

AG: Ba, alde batetik komunikabideek "sex" berba edo kontzeptua ezelango helburu zientifiko barik erabilten dabelako, horrek publizitate handia emoten deuselako. Bestetik, lehen aitatu dogun lez, gure desioa, jakingura eta grina oso handiak diralako. Azken baten, Internet sexua zer dan ulertzeko beste bide bat izan daiteke. Esaterako, gure aitita-amamek ez euken Internetik, baina euren desioa eta sexualitateaz jakiteko gogoia gaur egun dagoanaren antzekoa zan. Halan da ze, gauzak jakiteko beste modu batzuk egoten ziran, berbarako, naturagaz egoan kontaktua, horrelako kontuak lagunartean aitatzten ziran, gaur egun egiten dan modu beratan. Azken baten, gauzen itxura aldatu egin da, baina ez edukina eta jakingura.

TX: Sexua oraintsu arte tabutzat hartua izan da kultura ofizialean. Horrek, zoritxarrez, informazio falta itzela sortu dau. Gazteok jantziago gagoz gai honen inguruan edo topiko jakin batzuen arabera baino ez dogu jokatzen?

AG: Bai, egia da sexualitatearen inguruko gauza guztiak tabuz josita egon dirana, eta batez be, frankismo sasoiaren. Momentu historikoak neurri handi baten markatu eta zehaztu egiten dauz jarrerak eta jokabideak. Orain, oster, bestelako tabu batzuk daukaguz, ze ondino sexualitateaz berba eginkeran, jendeari itaundu

egiten deusozu zer gura dauan eta ez dozu erantzunik jasoten. Horixe igarri egiten da gure bulegoan, emoten doguzan ikastaroetan, egiten deuskiezan deietan... Mitoak ondino egon badagoz baina bestelakoak dira. Lehen masturbazioa pekatua zan, eta, gaur egun, makina bat orgasmo ez daukana, ba, erdi leloa da. Beraz, nire ustez, jakin behar da gauza bakotzak bere momentua daukana, eta gauza guztietan oreka bilatu behar dana, hau da, nork bere bidea jorratu behar dauana. Hori bai, gaur egun, jendea prest dago gai honen inguruan gauza gehiago itaundu, entzun eta ikasteko.

TX: Gizarteak onartu egiten dauz gehiengoarenak ez diran sexu jarrerak (homosexualitatea...) edo ondino be igarten da horreek bazterrean eta marginalitatean izteko jokaerarik?

AG: Lehenengo eta behin, argitu behar dot homosexualitatea ez dala jarrera bat, ezta egiten dozun aukera bat be. Izateko modu bat besterik ez da, heterosexualen modukoa. Nire eritxiz, apurka-apurka bagoaz aurrera. Izan be, gizonezko zein andrazkoen homosexualitateari jago-konez, jendeak gero eta zabalago jokatzen dau portaera horreek ikusita. Dana dala, aldaketa hau gehienbat gertatu da homesexualek euren mugimendua kaleratzeko egin daben beharragaitik. Ganera, kultura gehiago ezagutzen





doguz, ohituretan eta zientzia mailan gehiago sakondu da, eta, azkenik, komunikabideek ezberdinak diran jarrerak, izakerak eta adierazpenak hurreratu egin dabez. Horrek guztiorrek jarrerak leundu eta erreztu dauz, baina ondino gure jokabideak sakondu eta landu behar doguz norberaren eta generako guztien sexualitatea hobeto ulertzeko, aurreiritxi barik. Esaterako, oso errez onartzen da homosexualitatea paperean, baina laguna, semea edo alaba danean, orduan gurago izaten da horreek homosexualak ez izatea.

TX: Gaur egunean hezkuntza erreforma dala eta, ikastetxeetan aurreikusita dago sexu heziketa emotea. Gure gizartean igarten da sexu heziketa horren eraginik?

AG: Sexu heziketa, nahitaez, beti-beti emoten da esaten dogunagaz eta esaten ez dogunagaz, holantxe be sexualitatearen ganeko mezuak zabaltzen doguz eta. Dana dala, argi dago gaur egun gero

eta sexu heziketa formala gehiago dagoana, ganera LOG-SEko agiritan sexu heziketa nahitaezko ikasgaitzat jotzen da. Edozelan be, erreformako agiritan agertu arren, gaur egun ez dago behar besteko baliabiderik horrelako heziketa bideratzeko. Hori dala eta, irakasleek ahal dana egiten dabe, baina askotan sexuaren inguruko eskolak izan beharrean, biologiaren ganeko eskolak besterik ez dira, kasu baterako, zer gertatzen dan obulu eta espermatozoideakaz... Horregaitik, sexua gehienetan ez da azaltzen geure izakera osoaren zati modura, hau da, ez da aititzen

zeintzuk diran gure sentipenak, bildurrak, modu batera edo bestera jokatzeko zergaitiak, eta abar. Edozelan be, gero eta sentsibilitate handiagoa ikusten dogu gai honen inguruan eta badira honegaz arduratzen diran irakasleak. Horrelako heziketa emoteko prestakuntza behar da, eta hori guztiori bideratu eta irakasleak

jake interesatzen, kasu baterako, zelan sentitzen diran hilekoa daukenean, zer pasatzen dan masturbazioagaz... Hori dala eta, gurasoek bere buruari itaundu behar deutse euroi zer gertatu jaken horrelakoak sentitu ebezanean, geroago seme-alabak hobeto ulertu eta alkarregaz pentsamenduak eta sentimenduak komentatzeko. Horixe da, hain zuzen, familian jakinarazo beharrekoa, hau da, zein gatxa dan danontzat sexuaren ganean berba egitea, zelango ardurak dagozan, zelan ikasi daikegun besteengandik, eta, ulertu eragin gurasoak hortik pasatu dirala, eta, oraindikarren horretan dabilzala. Izan be, seme-alabentzat oso garrantzitsua da erreferentzia eukitea. Edozein modutan be, sexu heziketarik egokiena bikotekideen arteko hartuemonak lantzea da, horixe izango da eta seme-alabek bikotearen ganean hartuko daben lehenengo erredua eta erreferentzia.

TX: Azkenik, txiste modura esan ohi da Euskal Herrian sexuagaz daukaguzan gabeziak edo hutsuneak beste aho-satisfakzino batzuen bitartez ordezkatzeko doguzala, jana eta edanaren bitartez, hatan be. Sexologo batek zer esan beharko leuke horrelako baieztapenen inguruan?

AG: Nik pentsatzen dot ondo jan, ondo edan eta ondo lo egiten dauana bestelako kontuetan be ondo baino hobeto ibiliko dala. Hori bai, jan edo edan besterik egiten ez badozu, ba, gauzak ez dira hain errez bideratuko. Azken baten, sexua-

Sexu heziketarik egokiena bikotekideen arteko hartuemonak lantzea da, horixe izango da eta seme-alaben lehenengo erredua eta erreferentzia.


prestatzeko baliabide ekonomikoak. Gaur egun, zoritxarrez, ez da horrelakorik egiten.

Beste alde batetik, aitatu behar da horrelako heziketa gehienbat etxean dagoala, eta ez dala beharrezkoa ubuloa nondik datorren edo endometrioa non dagoan jakitea. Ze, seme-alabei hartuemonak zelan gauzatu eta eurak zelan sentitzen diran ulertu eta jakitea baino ez

litatea gure gorputzari oso lotuta dagoanez gero, zenbat eta gure gorputzagaz gehiago gozatu, orduan eta aukera gehiago eukiko doguz geure sexualitateagaz gozatu ahal izateko.


Joseba TERREROS

Zer egin dozu jaietako ostea kenduteko?



Esti MARKAIDA

Eguerdiko hamabietara arte lo egin, aspirina erdia hartu eta prest hurrengo jaietarako.



Aitor GARAI

Nahi ta gauero ibili izan, ez dot osterik euki izan.



Felix JAUREGIZAR

Ni ez naz jaietan egon, baina esan ahal deusut zelan kendu daberen nire alabek: lo, lo eta lo gehiago.




Ainare MADARIAGA

Lo ta lo eginda, hurrengo egunean barriro prest egoteko edaten jarraituteko.



Jabier ALZAGA

Lo ta lo eginda, hurrengo egunean beharrean joateko.



Aitor APRAIZ

Beharrean izerditan emonda eta ha-
maiketako gogorra hartuta.

ANARTZ - HAITZ - LARRAITZ - ZIORTZA

«Nik igarri, nor dan egarri.»

Oharra:

Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz.

Beste aldetik, ez dogu irain-garrizat jo daiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.



BAKIOKO JAIAK

Jaien osteko lehen TXIRRITXOLA dela aprobetxatuz, haiei buruzko zenbait kritika batu ditugu. Lehendabizi, garbitasunari dagokionez akats batzuk azpimarratu nahi genituzke. Alde batetik, komun publikoen falta somatu genuen. Eta ez bakarrik guk, are gehiago inguruko etxaldekoek, haiek jasan behar izan baitute jendearen lotsagabekeria. Jendeari berdin zaio bere beharrianak kotxe baten atzean egin edo ondoko etxeke lorategian edo baratzean. Horregatik, hurrengo urterako zenbait komun jartzea iradokitzen dugu. Bestalde, sastarrontzien premia somatu dugu. Jaiak suposatzen duten sastar pilaketa kontuan hartuta, Zubiaurralden ez genuen bestelako sastarrontzirik aurkitu.

Beste hari bati jarraituz, azken eguneko jai girorik eza azpimarratu nahi genuke, batez ere Zubiaurralden eta gauez. Zezensuzkoak ez baitzuen bestelako jendetzarik erakarri.

Dena dela, aitortu behar da aurtongo jaiak ez direla batera txarto egon eta zerbait hobetu direla. Gure iritzia kontuan hartuko delakoan, agur.

BAKIOKO GAZTE BATZUK



BAKION ERE... CASTELLANO SERRAU!

Jada ez gara aldeanuek, Mungiarrek bezain modernuek gara. Horregaitik, gure arteko hartuemonak zibilizatuak direz orain. Holan eta bere, oso abertzaleak izanik, umeak euskal eskolara botaten doguz, txakurrari euskeraz egiten deutsogu eta geure herriak nahiz hizkuntzak jasaten daben zapalkuntzaz oso arduratuta gagoz. Hainbeste denboratan kezkatuta egon ostean, hizkuntzaren arazoa konponduko dauan «formula magikoa» topau dogu. Super Baskoak izaten jarraitu ahal izateko, fatxa, ez fatxa, español, basko, gorri eta ez gorriok badaukagu alkartuko gaituen hizkera: «el castellano serrau del norte». Aurrera bolie eta amamaren bolinetie!

Jose txu Kilkir



BAKIO SURF TALDEA

Bakio Surf Taldea hazi eta hazi egin da. Horren adibidea, gaur egun surfaz gozatu eta berori bultzatzeko asmoa daukan kolektibo hau 170 kidek baino gehiagok osotzea. Ekintzarik gehienak gazteenei zuzentzea izan daiteke horren arrazoi-etariko bat.

Jardueraz beteriko uda honetan be surf eta bodyboard ikastaroei harrera ezin hobia egin jake. Halan da ze, 7 urtetik 15 urtera bitarteko 30 neska-mutilek baino gehiagok hartu dabe parte Bakio Surf Taldeak antolatutako eskoletan. Azpimarratzekoa da nesken kopurua mutilena baino handiagoa izan dala. Era berean, ikastaroan zehar neska-mutilek surfean jarduteko gitxieneko jakite maila lortzeaz ganera, itsaso, beraren egoera zein prestakuntza fisikoaren ganeko ezagupenak eskuratu dabez.

Lehiaketei jagokenez, Bizkaiko Kopa, gazteei zuzendutakoa, izan zan lehenengo. Bertan, gure taldekoek oso zeregin ona bete eben kategoria guztietako lehenengo postuetan lotuz. Ez dogu ahaztu behar horrelako lehiaketak Bakio Surf Taldearentzat garrantzi handikoak dirana, gazteenen esku dago-eta gure hareatzako surfaren etorkizuna. Uda honetan be herri mailako txapelketa egin dogu. Horrelan, taldeko surflariak gure arteko norgehiagokari ekiten deutsogu kategoriaren araberako sailkapena ezarriz. Horren helburua klubaren arteko lehiaketetan gure taldeko ordezkariak nortzuk izango diran zehaztean datza.

Garagarrilean Europako Reef 99 Txapelketaren txanda izan zan, Europa mailako EPSA ligan puntuak eskuratu guran. Halan da ze, Bakion Europako surflaririk onenak batu ziran (Frantzia, Britainia Handia, Portugal, Italia, Alemania...). Txapelketaren lehenengo egunetan olatu onak izan ziran eta aparteko ikuskizuna ikusteko aukera euki genduan. Ganera, aroak be lagundu euskun lez, hareatzara jende asko hurreratu zan giro bikaina sortuz. Zoritzarrez, azkenengo egunean lehiaketa bertan behera itzi behar izan genduan, olaturik egon ez zalako.

Txapelketa honen barruan jarduera osagarriak ipini ziran abian, berbarako, "Miss Reef" eta ohol zaharren erakusketa. Bakio asteburu horretan jendez ganezka euki genduan goizean eta gauean eta horrexek frogatu egiten deusku zein garrantzitsuak diran horrelako ekitaldiak eta zenbat jende erakarten daben mota honetako ekimenek. Gu, behinik behin, pozarren gagoz lehiakideek eurek antolaketaren inguruan egindako balorazioa oso ona izan zalako, gazteenek txapelketa ilusino handiz gozatu ebelako eta Bakiora asteburu horretan jende mordoia etorri zalako.

Jarduera eta ekimen honek guztiak Bakio Surf Taldeak daukan filosofiaren barruan sartzen dira. Horren jomugak Bakioko surfa sustatu eta bideratzea gure herri zein kirol honetan diharduen jendearen alde.

Agur t'erdi.

B.S.T.

Hau zeure iragarkirako lekua izango da.

urriaren 24an Saran
AEK eguna
99

**Autobusak Bakiotik
urtengo dau**
(informazioa Kultur Etxean)



Goizeko 10:00etan ekingo jako urtean-urtean milaka euskaltzale batzen dauan giro bikaineko jai honeri. Sano egitarau zabala eukiko dozue: dantzak, bertso-lariak, pelota partiduak eta kontzertuak (Skalariak, Beta-garri, Bide Ertzean, Niko Etxart eta beste hainbat). Beraz, animatu eta hartu egizue parte.

Oharra: euskeraren aldeko jai honetan euskeraz egiteko ohitura dago, zatoze esperientzia barri hau bizitzera.

EUSKERA IKASTAROAK BAKION (AEK)

Matrikulatzeko azken egunak. Informazioa eta izen emotea 94 674 43 16 telefonoan edo Turismo Bulegoan. Bakioko Udalaren dirulaguntzaz, Bakioko AEK-k antolatua.



*Kafetegia eta
Jatetxea*

Urkiar Alde, 30
Tfnoa.: 94 619 40 04
BAKIO

M.^a Angeles Abio Uriarte

JANARIDENDA




Benta Alde, 143
Tfnoa.: 94 619 43 10
48130 BAKIO



**KAFETEGIA
KRESALA**

Zubiar Alde, 67
Tfnoa.: 94 619 1 90
48130 BAKIO




ITSAS ibiltokiko obrak OSTERA BE MARTXAN

Itsas Mugarte Sailak Bakioko Udalarari jakinarazotakoaren arioan, urriaren bigarren hamabostaldian ostera be ekingo jake ibiltokiko obrak behin betiko amaitzeko beharrei. Itxaron daigun Mugarte Sailak udalari agindutakoa betetea.

UDALAK BASERRITARREN MUSEOAREN AURREPROIEKTUA ONETSITA

Udalak baserritarren museoa abian ipinteko aurreproiektua onetsi dau. Museo honen helbururik behinena honakoxeak izan dira: bertoko ezaugarriak eta kultura kontuan harturik, Bakioko eskaintza kulturala eta turistikoa hobetzea, bai eta geure izakeraren zati garrantzitsua dan bizimodua prestigiatu eta bultzatzea be.



ERREKA NAGUSIA bIDERATZEKO obrak LASTER HASIKO DIRA



Udalak beharrezko tramitazio guztiak egin ostean, Eusko Jaurlaritzak obrak egiteko adjudikazioa besterik ez da falta. Halan da ze, Erreka Nagusia bideratzeko obrak hurrengo urteko lehenengo hilabeteetan hasiko dirala aurreikusita dago.

TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozentzako salneurri barriak. Salneurriok 1999ko apiriletik aurrera egongo dira indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkerotan, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94.6193369.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale1
8rena (125 x 85)	10.000	7.500	5.000
16rena (87 x 66)	7.500	5.000	3.750
32rena (66 x 40)	5.000	3.750	2.500

MUNGIA ETA BERMEORA JOATEKO AUTOBUSEN ORDUTEGI BARRIA

Bizkaibusek Mungia eta Bermeora joateko autobusen orduak aldatu dauz. Ordutegi barria, bada, honako hauxe da:

Bermeo-Bakio (astegun eta zapatuetan)
07:15etik 19:15era ordu birik behin.

Bermeo-Bakio (domeketan)
09:15etik 19:15era ordu birik behin.

Mungia-Bakio (astegun eta zapatuetan)
06:15etik 20:15era ordu birik behin.


Bakio-Bermeo (astegun eta zapatuetan)
06:45etik 18:45era ordu birik behin.

Bakio-Bermeo (domeketan)
08:45etik 18:45era ordu birik behin.

Bakio-Mungia (astegun eta zapatuetan)
07:45etik 19:45era ordu birik behin.

Mungia-Bakio (domeketan)
08:15etik 20:15era ordu birik behin.

Bakio-Mungia (domeketan)
9:45etik 19:45era ordu birik behin.



BAKIO TROPICALA?

Alkanteko Elchetik ekarritako sei palmondotzarrak hor dagoz, zutun-zutunduta zerura begira, ibiltoki eta haretzearen aurrean. 5. metroko palmondoak 50 urtekoak ei dira eta sano sendoak hazita dagoz. Batzuetan han jotzen dauan itsas-haize gogorriari eutsiteko bestekoak dira, aurki. Euren betebeharrak haize gogorra apur bat moteldu edo lotutea izango ei da. Jakin dogunetik, udalak ez dau palmondoak ordaindu, horretarako dirua ibiltokiaren aurrekontutik atara dabela. Ez dago zalantzarik, palmondoak Enderika ondoko ingurua dotore jantzi dabena, hareri halango tropikoko ukutua emonaz.



**«Asagoko intxaurrak hamalau,
hurreratu eta lau.»**

APAREJADORE BARRIA BAKION

Xabier Lopez Kerejeta dozue herriko aparejadore barria. Hogeita zortzi urtekoa da, Hernaniarra eta beraren eginkizunak honakoxeak: lizentzien segimendua egin, obren burutzapena ikuskatu, arkitektoari lagundu eta obren ganeko txostenak, ziurtagiriak eta abar egitea. Euskalduna da, beraz, euskeraz egiozue ezelango bildur barik.



BAKIO BIZKORTUTEKO ASMOA



Bakioko turismo eta merkataritza arloak bizkortuteko egitasmoari ekingo jako laster. Urte guztian 1.500 lagun bizi dira Bakion, udan, barriz, 12.000tik gora. Sasoi horreetan egoten diran bizilagun kopuruen arteko alde sano handia da. Hori dala-eta, sortuten diran arazoak gitxituteko neurriak hartu gura dabez. Bakiok daukazan bitarteko ekonomikoak, turistikoak, naturalak zein kulturalak aztertuko dira. Gero, azterketa horrek erakutsiko dauazan ondorioetan oinarrituta, datozen urteetako helburuak eta herri jokabidea erabagiko dabez. Horretarako beharrezkoak diran jakingarriak batuteko bakiotarren, udatarren zein bilbotarren artean ibiliko dira itaunka, eritxiak entzuteko edo.

TXAKOLINAREN INGURUKO GORABEHERAK

Daborduko, Bakioko txakolin egileek mahatsa batzeari ekin deutsoe. Eurek esandakoaren arabera, aurtengo uzta on-ona izan da udako eguraldi epel eta eguzkitsuari esker. Era berean, aitatu beharra dago 1999ko txakolin ekoizpena ia-ia agorturik dagoala.

*Berton zure iragarkia argitaratu
ahal izango dozu.*

OMENALDIA BAKION ALKATE ETA ZINEGOTZI IZANDAKOEI



Aurreko abuztuaren 15ean Bakion alkate eta zinegotzi jardunekoiei omenaldia egin jaken. Izan be, aurton 5 legegintzaldi eta 20 urte bete dira udaletan alderdi politiko eta koalizioek hauteskunde bidez parte hartzeko aukera daukenetik. Hori dala eta, azkenengo udal honetara arte korporazioa osatu daberen guztiak udaletxera gonbidatuak izan ziran hamaiketako baten inguruan berba egiteko. Horren ostean, bertaratutakoei oroigarri bana emon jaken.



BAKION EROSTEA

Turismoak jota dagoan edozein herritan jazoten dan lez, Bakion be eguneroko jakiak eta edariak erosteko salneurriak karu be karu dagoz, udan batez be. Bizkaiko itsasaldeko herririk karu-entariako bat ei da gurea. Batez beste, aurtongo udan %9,18 karutu dira oinarrizko erosgaiak bertan. Gorniz, barriz, %16,6 karuagoa da, herririk karuena bera izanda. Udatiarren etorrerea dala-eta, saltzaileek udako

hiru hilabeteetan urte oso irabaziak egiten ahaleginduten dira, negu luzean ia inor erosten ez ei jakelako joaten. Bilbon, esate baterako, bertan baino %28 merkeago dagoz eguneroko jakiok. Kontsumitzaileen Alkartekoen esanetan, euren ezin dabe horren aurka gauza handirik egin, aurki. Baina, horren guztiorren ondorioak herrian urte osoan bizi diranek eroaten dabez. Askotan, udako salneurri igokera urte

osoan ordaindu behar izaten dabez eta. Amen bada herririk karueneren zerrenda interesgarri hau:

- GORLIZ	+% 16,60 ↑
- BAKIO	+% 9,18 ↑
- GAMINIZ (Plentzia)	+% 9,00 ↑
- LEKEITIO	+% 2,00 ↑
- BILBO	-% 28,00 ↓



EUSKAL PRESOAK HERRIAN ORAIN!!

Abuztuaren 28an, eguerdiko 1etan, udaletxearen aurreko ordu laurdeneko alkartzera deitu eban Bakioko Udalak, euskal espetxeratuen egoera lotsagarria salatuteko asmotan. Euskal Herritik asago dagozalako ez eze, eurok eroan behar izaten daberen zigor gehituagaitik eta Madrileko Gobernuak arazo honetan legeak dinona ez beteteagaitik be protesta sendoa egin eben hara batutako guztiek.

IPUIN KONTALARIA



Aurten be, hirugarrenez, **udaleku irekia** antolatu dau Kultur Etxeak Bakion. Garagarrilaren 19tik 30era, 23 ume eta begirale bi batu dira egunero olgetak, eskulanak, kirolak eta beste hainbat ekintzari aurre egitekotan. Euretarikeo bik, Mikel Ugalde eta Iraitz Ugalde, itaun batzuei erantzun deuskuez:

TX: Zelan ibil zaree aurtengo udalekuan?

Mikel: Ondo eta pozik.

Iraitz: Oso ondo ibili naz eta gustatu jat.

TX: Zein da egin dozuen gauzarik dibertigarriena?

M: Rokodromoa eta "bomba" izeneko jokia.

I: Olgetak: alarma, alturitak, armiarma, toki bietara... eta peloteaz olgatutakoak.

udaleku irekia bakion

TX: Eta zelan konpondu zaree beste umeekaz?

M eta I: Ondo. Lagun barriak egin doguz.

Kultur Etxeko liburutegian, garagarrilaren 20an eta abuztuaren 24an, Ipuin Kontalaria euki dogu txikientzako moduko kontuak kontetan.

Luzeak eta laburrak, bildurrezkoak eta misteriodunak, alaitsuak eta barre-garriak,...



TX: Datorren urtean etorteko asmorik?

M eta I: Bai.


Bakioko Kultur Etxeko Ikastaroak

Urria + zemendia + abendua

IKASTAROA	EGUNA	ORDUA	\$
ESKU-LANAK I	egustena	10:00-12:30	5.500
ESKU-LANAK II	eguna	17:00-19:30	5.500
PINTURA	martitzena	17:30-20:30	5.500
SALOI-DANTZAK	astelehena	19:15-21:15	6.000
YOGA	astelehena+eguaztena	19:00-20:30	5.500
AEROBIKA	martitzena+eguna	20:00-21:00	5.000
GIMNASIA	astele.+marti.+eguna	9:30-11:00	4.500

Izena emon: irailaren 13tik 27ra arte, Kultur Etxean 17:00etatik 21:00etara.

Ikastaroak urriaren 4tik aurrera hasiko dira. Ordainak hiru hilabetekoak izango dira. Hona deitu: Tel. 94 619 33 69



Ardaoari Buruzko Ikastaroa

Garagarrilaren 26tik 29ra bitartean Kultur Etxeak antolatutako «Ardaoari Buruzko Ikastaroa» euki genduan Bakion. Bertan, lau arratsaldetan, ardaoari lotutako eduki interesgarri batzuk sakondu ziran: dastatze-teknika, ardaoak lortzeko prozesuak eta ardao ezbardinetako ezaugarriak (zuriak, gorriak, baltzak, apardunak...). Egun bakotxean, teoriak aparte praktika be landu zan, hau da, dastaketea.


Enologo eta sumillerra dan Mikel Garaizabal izan genduan irakasle zereginetan.

Udako
erakusketak
Bakion

Uda honetan, hamaikatxu artisten lanak ikusi ahal izango doguz Kultur Etxeko erakustaretoan: Nati Alonso, Rosa Marina, Ruslan Galazov, Luisa Boán, Ramón Barreiro, Janire Calleja eta Miguel Garai.

Argazkian Janire Callejaren lana ikusi daikegu.

BAKIOKO KULTUR-ETXEA
IRAILAREN 1-10ra



ERAKUSKETA:
MARGOAK (Olio eta akuarela): Janire Calleja
ESKULTURA: Miguel Garay

EUSKERAREN EGUNA LASTER

Euskerearen eguna be badatorku, nahiz eta aurten arteragokoetan baino atzeratuago ospatuko dogun. Azken orduko aldakuntzarik egon ezik, zemendiaren 31an izango da. Egitaraua be gauza barri apur batzuekaz etorriko jaku eta, holan bada, zeuon eskuhartzea eskatutea baino ez jaku geratuten. Hori bai, laguntza hori euskeraz izan, ahal dan neurrian, jaia ez daiten Euskerearen Egun erdaldun bihurtu. Ea apurka-apurka geurea dana erabili eta jagoten joango garan.

XII. IDAZ LEHIAKETARAKO OINARRIAK-99

1.- Gaia edozein izan leiteke; ipuin, elebarri labur, kontakizun,...erara aurkeztuta.

2.- Edozeinek hartu leike esku; bertoko zein erbestekoa izan.

3.- 15 urtetik aurrera lanak idazkinaz idatzita aurkeztu beharko dira.

4.- Euskeraz aurkeztuko dira idazlanak, batuaz zein bizkaieraz.

5.- Idazlanaren luzerea gehien sei orrialdekkoa eta gitxien orri bikoa izango da.

6.- Idazlanak aurkeztuteko epea abenduaren 11n amaituko da. Idazlana gutunazal handi baten barruan sartuta, berorren kanpo aldean "Bakioko XII. Idazlan Lehiaketa" eta adin taldea adierazo behar dira.

Beste gutunazal txikiago baten idazlearen zehaztasunak agertu behar dira: izen-abizenak, jaiotza eguna, zuzenbidea eta telefono zenbakia. Gutunazal handia, txikia barruan sartuta dauala, aurkeztu behar da.

7.- Euskera Batzorde honen eskuetan lotuten dira zuzenketaren ardurea, azken erabagia eta sarien banaketeta. Baita idazlanak argitaratutea be.

ADIN TALDEAK

- 1.- 7 urterik 10 urtera
- 2.- 11 urterik 14 urtera
- 3.- 15 urterik 18 urtera
- 4.- 19 urterik aurrera

OHARRA

Lanak Kultur Etxean itzi behar dira, abenduaren 10ean beluen. Sariak abenduaren 24an, Gabon gauan, pelotalekuan emongo dira.


Bakioko Euskera Batzordea









DOLOZAK 99

S A N J O A N







Andra Mari Iguna

Abuztuaren 15ean Andra Mari eguna ospatu zan gure herrian. Goizean, "Itxas-Alde" taldeko dantzari eta udal ordezkariak lagunduta, kalerik kaleko ikusgarria egin zan udaletxetik eleizaragino. Eleizan jende mordoia batu zan, eta mezaren ostean, txakolina eta gailetak eurrez banandu ziran. Arratsaldean, oster, frontoian pelota partiduak eta udaletxeko plazan umeentzako euskal jaia euki genduzan. Makina bat ume batu zan "Anboto" eta "Bihar" taldeek eskainitako ikuskizunak gozatu guran. Giro ederra, benetan, eta umeak gustura, guzti-guztiek oso gogoko izan eben-eta eurentzat beren beregi prestatutako euskal jaialditxua. Azkenik, urtean-urtean probalekua beteten dauan "Itxas-Alde" taldearen jaialdi eta dantzaldi dotorea. Beti bezain bikaina eta hunkigarria, bakiotarrek itzelezko txalo zaparradaz eskerturikoa.

Badakizu? Eratu egin da UDALBILTZA Zer da Udalbiltza?



- Euskal Herri osoa lehenengoz ordezkaturiko dauan erakunde nazionala. Sortze ekitaldia irailaren 18an egin zan Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan 354 udalerritako 1.778 hautetsik hartu eben parte, 354 udalerrri ordezkaturiz. Bakioko 7 zinegotzi bertaratu ziran ekitaldi horretara.
- Lurraldetasunaren lekukoa izanda, nazino eraikuntza bultzatzeko tresna izango da Udalbiltza.
- Herrialdeen nortasuna errespetaturiz, izakera nazionalari modu bateratuan erantzün gura jako. Euskal Herriaren arazo nagusien diagnostikoa egiteko tresna izango da.
- Lau bizkaitar, lau gipuzkoar, hiru nafar, hiru arabar eta lapurtar bat izango dira Batzorde Iraunkor barrian.
- Batzorde Iraunkorra, honezkeroan, hasi da beharrean; lan taldeak osotzea euki dau zeregin nagusizat.



Eratu da Udalbiltza

«Ez dago txarrik, ondo ez datorrenik.»

Joan dan agorrilaren hamabian, ia ohitura bihurtu jakun lez, bertso afari ederraz gozatuteko aukerea euki dogu gure herrian. Oraingoan, Arimune ostatua izan da lekua eta Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak, jakingo dozuenez, biak bizkaitarrak. Esan beharra dago, etorri ziran bertsozale kopurua be inoizkorik handiena izan zala. Halan da ze, esan geinke, bagoazela apurka-apurka Euskera Batzordearenak diran helburuetara parajetuten. Ahor daukazuez gau haretako saioko zatitxu batzuk.



ARIMUNEN BERTSOTAN



Eklipsea dala eta, Igor eklipsea ikusteko gafak saldu gurean dator Bakiora eta, holango baten, non ikusten dauan Unai, gaua parrandan igaro ta gero, etxerantz doala. Beraz, bata betaurrekoak saldu gurean eta bestea lo egin gurean.



Gaupasa eginda nator
zuk holan dinozu.
Argiaz problema
itzela daukazu,
honegaz dana baltza
ikusiko dozu.

Gaupasa eginda dator
mutiko makarra.
Baina suertau jatzu
suerte ederra,
eklipse doblea ikusi,
ahal dauan bakarra.

Zure ahotik entzun dodaz
hainbeste hitz.
Pixka bat triste eta
pesimista zabiltz,
zugaitik ba mundua
amaituko balitz.



Eklipse hori dogu
benetan egia.
Erdi eklipsatuta
lehendik dot begia
ta aitak eklipsatu
behar deust erdia.

Eklipsea dala-ta
gora eta behera.
Paregabe ei da
nik dodan aukera,
bape ikusi barik
joan baietz ohera.

Pako Rabanen berbak
ez dodaz entzun, ai!
Nire pastilatxo bat
zuk ez al dozu nahi?
Eklipsea ez da ikusten
baina superman bai.



Unai Beitia

1999ko urria

SEEDORF-egaz berbetan



Seedorf football jokalaria ospetsua Bakiora etorri jakun, bake bila aurki. TXIRRITXOLAKo *paparazziak*, baina, atzetik ibili jakozan, harik eta hurrengo alkarrizketea lortu arte. Izan be, bakearen truke zeozer ordaindu behar izan eban: alkarrizketea bera. Hara, zer esan eutsen.

bestegaz antzarik be. Benetan, oso baketsu ibili naz.

TX: Zelan hartuten dau 23 urteko mutilak bere inguruan mobiduten dan guztia, hau da, dirua, ospea,...?

SE: Hori herri txiki bateko bizitzatik uri handi bateko (Madril) bizitzara ohitutearen modukoa da. Gorputza eta burua ohitutea baino ez da.

TX: Mundu honek asko aldatu zaitu?

bizitzan. Egoera horrek gizonduten lagundu deutsu?

SE: Nik neure buruagan sano sinisten dot eta nasai-nasai egoten naz beti. Uste dot, ganera, neureak baino gorriagoak pasetan dabilzala beste batzuk be.

TX: Eta azkenez, aholku bat mundu honetan arrakastea lortu gura dauan batentzako.

SE: Ames egin behar da eta ames horreek lortuten ahalegindu. Ezin da inoz norberaren buruagan eukiten dan fedea galdu. Hori da garrantzitsuena, eta ez egon ikusten zelan baten batek ames horreek lapurtuten deutsuzan.

SE: Ezetz uste dot nik.

TX: Une gatxa igaroten zagoz zure

TX: Eskerrik asko!

Egoitz GARAI

TXIRRITXOLA: Ze inpresino eragin deutsue herriak eta beraren jendeak?

SEEDORF: Bakioaren berezitasun eta naturearen arteko alkartzea berton oso polita da. Ni urte batzuetan Genoan (Italian) egon naz olgetan eta ha be antzekoa da. Danetarik dago. Alde batetik, mendiak, beste alde batetik, haretzea eta, jakina, itsasoa. Benetan, zoragarria! Zoritxarrez, ez dot jendeagaz egoteko modurik euki, ze beharrean etorri naz, baina hemengo jendeak alaia eta irigria dirudi.

TX: Aurkitu dozu bilatuten zenduan bakea?

SE: Bai, argi dago baietz. Badakizu, herria herri da eta, jakina, bost milioi petsona batetik eta mila seirehun pertsona bestetik ez dauke batak



Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun, TXIRRITXOLAK lekutxu hau eskainiko deutsu.

BAKIO

BERBARIK BERBA

Aurreko garagarrilaren 30ean Iñaki Gamindek idatzitako «Bakio barbarik berba» liburuaren aurkezpena izan zan. Bertara, komunikabideetako kazetariei deitu ez eze, liburuaren barri emoile eta protagonistak izan diran bakiotarrak gonbidatu be egin genduzan udal eta liburuaren egilearen eskerrona hartu eien. Iñaki Gamindek behin eta berriro aldarrikatu eban Bakioko euskeraren balio linguistikoa, eta han batutako guztioi argi eta garbi esan gura izan euskun hizkuntz eredurik egokiena geure herrian bertan daukagula. Berbalditxuaren ostean, hamaiketakoa eta barriemoleei Ander Ormazak bihotz-bihotzez opetsitako aureskua. Halan da ze, liburua Turismo Bulegoan daborduko salgai daukazue 1.500 pezetan. Ez galdu gure herriko kultura eta berbakera hobeto ezagutzeko aukera. Ganera, esan beharra dago lan horrek nahiko oihartzun zabala jadetsi dauala inguruko herrietan (Jatabe, Mungia, Arrieta, Meñaka eta Zamudion antzeko zeozer egiten hasi izan dira) eta euskal komunikabideetan (ETBko «Bertatik Bertara» saiokoek horren inguruko erreportai



egin eben San Miguel egunean). Beraz, Iñakik berak esango leuken lez, «ikasiko ahal dogu entzuten eta bertan daukaguna baloratzen!» Halan beite.



EUSKEREAREN ALDEKO ALKARTEEN IZENPETZEA

Joan dan udabarrian Bakioko alkarte guztiak batu eta euskera aurrera atarateko konpromiso zehatzak sinatu ebezan «Bakion euskera zeure esku» egitasmoaren aurkezpen ofizialean. Oraingoan, ostera, egitasmoa aurrera atarateko txosten bi aurkeztu jakez alkarteetako buru zein euskera arduradunei. Batean, astialdia euskeraz bideratzeko prozedura aurkeztu jake eta bestean, alkarteetako barruko funtzionamenduan euskerak aurrera egiteko erispideak ezarri dira. Horren ondorioz, Bakion Euskera Batzorde barria eratuko da. Bertan alkarteetako euskera arduradunak egongo dira ordezkaturik eta batzorde honen zeregina bikotxa izango da: batetik, astialdiko urteko egitaraua adostea, prestatzea eta baloratzea, eta, bestetik,

alkarte barruan euskerak aurrera egiteko baldintzak apurka-apurka baina eten barik sortzea. Egitasmoa garatzeko txostenen aurkezpena aprobetxatuz, Bakioko etxe guztietara bialduko da taldeek sinatutako konpromisoak azaltzen dauazan biorrikoa, bai eta «Euskaldunen Errolda» martxan ipinteko gutuna be. Honen guztiaren helburua, azken baten, bakiotar guztion inplikazioa lortzean datza euskera guztion ardura dalako mezua zabalduz. Horretarako, bakiotarrok euskerazko jarduerak eta ekitaldiak antolatu, euskeraren inguruko kontzientzia zabaldu eta gure kultura prestigiatzeko ahaleginak egin beharko dozeuz, bakiotarrok bakiotar sentitzen jarraitu gura badozue zeuon herrian.

TURISMO BULEGOAREN EMOITZAK ETA ERITXIAK

1998an:	3.929 bisitari
1998ko udan:	3.538 bisitari
1999an:	7.251 bisitari
1999ko udan:	6.880 bisitari

Aurreko urtearen aldean, bisitarien kopuruak %94 igon dau. Gehien eskatutako informazioa hareatza, txakolin, bidezidor, kultur eta kirol eskaintza, alojamendu zein gastronomiaren ingurukoa izan da. Agiriko hutsuneak, ostera, bisitarietara harrera egiteko behar besteko azpiegiturarik ez eukitea, batez be alojamenduaren ingurukoak, kanpina, nekazalturismoak, ostatetxeak, hotelak eta abar. Hona hemen, bada, turismoak eukitako gorakada horren ganeko zergaitiak eta eritxiak.

Asko izan dira aurton Bakiora etorri edo hemendik igaro izan diran atzerritarrak. Aurreko urteetako kopuruaren aldean, bisitarien aurtongo kopurua sano handia izan da. Gorakada hau era askotariko faktoreek eragin dabe, berbarako, Guggenheim museoa, ETaren su etenaldia, Euskal Herrian turismo arloko behargin eta arduradunen ahalegin handia eta eraginkorra.... Horrek guztiorrek gurera behin edo behin etorritako turistak barrian ekartea lortu dau. Atzerriko turisten artean Espainiako estatutik etorri dira gehientsuenak, hau da, Madriletik eta Kataluniatik, hatan be. Castilla-León, Valentzia eta Andaluziatik etorritakoen kopuruak be gora egin dau. Oste-rantzeko artean, frantziarrak izan dira hemetik gehien agertu izan diranak. Horreen ostean, britainiarrak eta alemaniarrek. Azpimarratutakoa da Herbehereak, Italia eta Ameriketatik etorritako bisitarien kopuruaren gorakada. Gurera etorri direnek gogokoen izan dabez gure herrialdearen natur ingurunearen edertasuna, guk egindako abegi ona eta gure gastronomia itzela.

Udarako eratu doguzan ekintzei jago-kenez, horreetariko ekintza batzuetan egon dan eskuhartze handia aitatu geinke, esate baterako, piragua, surf eta zaldiketa lehiaketetan, txangoetan, ... Beste batzuetan, ostera, eskuhartze txikia izan



dogu: soinketan, rappel ikastaroan, ... Gure eritxian, gorago aitatu dogun eskuhartze txiki horren zergaitia izan leiteke udako ekintzen ganeko informazioa herriko biztanle guztiakana ondo heldu ez izatea.

Aurtongo urteko azken hiru hila-beteetarako, lehenengo eta behin, Port Aventura-rako txangoa eratu dogu, hau da, Pilareren inguruko asteburu luzean. Geroago, abenduan, edurtuta egongo diran inguruetariko batera joateko beste txango bat. Bakioko turismoa sustatzeari jagokonez, Zaragoza, Valladolid, Paris, eta Londoneko turismo azoketan ordezkatuta egongo da gure herria. Urrian,

turismo arloari begirako alkartegintzeari buruzko jardunaldiak izango dira. Zemendian, barriz, lehenengo "Bakion asteburu" txantela aurkeztuko dogu, geroagoko baten, bera Espainiako estatu salgai iminteko.

Argibide honeek guztioneek zeuen gogoko eta zeuentzat interesgarriak izango diralakoan, Turismo Bulegora etorri zaitezela eta zeuen eritxi eta iradokizunak egin deiskuzueza dei egiten deusuegu.

*Bakioko Turismo Bulegoko
beharginak*

MUXIKENE



Jakin badakigu, gehienok behintzat, MUXIKENE baserria non dagoan. Baina ba ete badakigu, orain horren zahar emoten ez dauan etxeak zelango historia dauan? Igarriko zeuntsoen MUXIKENERi "Muxika Ene"-tik datorrena, Muxika (Mujika) abizenetik, hatan be. Entzun be, entzungo zenduen Muxika sendia sano nabarmen eta ospetsua izan dala, orain gizaldi batzuk, Bizkaiko Jaurerrian. Jatorriz arabarrak

ziran. 1.200. urtean, inguru, errotu ziran Bizkaian, hainbat jaubetza eskuratu ebezala, Uribe dalako lurraldean batez be.

Gizaldietan zehar, Ahaide Nagusietarikoak izan ziran ezkerro, euren arteko guda negargarrietan hartu eben esku, eta beste herri batzuen artean, Bakioko Basigoko eleizan lapurretan egin eben. Urteak aurrera joiazala, inguruko beste oso sendi ospetsu bategaz alkartu ziran, Butroi familia-gaz, hain zuzen be.

Muxikatarrek hainbat aberastasun eta dirutza handia batu ebezan. Eleiza askotako hamarrenak, beharginen eskubideak, hainbat errota eta hainbat ola eukezan euren jaubetzapean. Baita baserri asko be. Hareen artean, Bakioko batzuk.

Ciudad Real-eko dukeak (D. Alonso de Idiakes de Butron-Muxika), familia horretakoa berau, hainbat errota eta ola euki ebazan Bakion. Basigoko eleizearen ugazaba zan, beraren ondorengoak izan ziran lez.

Muxikatarrak Mungiatik etorri ziran Bakiora. XVI. gizaldirako baegozan hainbat adar Bakion errotuta. Badakigu, 1575-1580 artean, Gonzalo Muxika zalakoa Mari Martin (Martina) Garraikoagaz ezkondu zana. Alargun lotu zan lau seme-alabagaz eta 1597an barriro ezkondu zan Mari Saez Azetretxokoagaz. Badirudi, haren ondorengoren batek Elexpuru etxea sortu ebala Bakion, abizena Muxika de Elexpuru hartuz. Beluago, Elexpuru abizena bakarrik erabilten hasi ziran, Muxikatarrak gitxika-gitxika ez-ezagunduz. Baina, hor dogu MUXIKENE baserria historia honen lekuko. Bertan biziko zan Muxikatarren ondorengoetarikoren bat. Non eta Bakion.

Anartz Ormaza

ZELAN DAUKE IZENA HARETZAKO HATX HONEEK?



Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea abenduaren 10ean amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia.

Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan

Arteragokoaren erantzun zuzenak:

1.- «Makatzeko iturria»

2.- «Beheko eleizearen atzean»

Ez da, zoritxarrez, erantzunik egon. Ez dogu uste, baina, itaunak hain gatzak izan diranik edo TXOBERNEko afariak horren lodigarriak diranik, ez eta urrik emon be. Ez zaitetz, bada, kikildu eta erantzuna bialdu eiskuzu!


TXOBERNE

Berton-bertokoa gozatuteko
leku aproposa

Bakioko txakolina, sagardaoa
eta jateko giro ezin hobiauau

Tfno.-zkoa.: 94 619 41 81



ZAHARRAK BARRI



Oraingo honetan, hartzako beste zati eder bat hartu dot aztergai, errekearen itsasoratzea, hain zuzen. Sakonean, San Joan Gaztelugatxeko ikusten dogu argazki bietan. Mendiaren profila ez da bape aldatu, baina, bai, ikuspegia. Argazki zaharrean dana garbi ikusten dogu. Barrian, oster, pankarta edo kartel batzuk dirala eta, ez da ingurua bere osotasunean ikusten. Urteak ez dira alperrik igaro, errekearen ubideratzea be eginda dago. Bizi doguzan urteotan, azpiegiturak eurrez egin dira eta. Orain, barriz, ez dago txalupak moilan lotuta dagozala ikusterik, gorago, apartalekuan baino.

Arteragoko beste atal batzuekaz alderatuta, esan geinke ingurua sano aldatu dala. Eta itauna da: hobara, ezta?

Anartz ORMAZA



«Ukondoa hur, baina ezin munik egin.»

SAN MIGEL EGUNA



Urtero lez, aurtan be, albo herrietakook Zumetzagako inguruetan izan gintzazan Mikel Deunaren eguna ospatuten. Eguraldia be ezin hobea izan zan, eta, goiz-goizetik, hainbat jende hurreratu zan baseleiza ondora euren janari eta edariakaz. Txistu eta danbolina, soinu txikia eta panderoa, gaita jole bat eta osterantzeko musikea ez ziran han falta izan. Ilundian, bat-bateko «Bizkaiko Dantzari Dantza» bat ikusteko aukerea euki genduan Bakioko dantzari gazte batzuei esker. Baina, osterantzean, ez zan beste urte batzuetako ekitaldirik egin. Edozelan be, jendearen parte hartzeari esker, jai giro ikaragarria egon zan Zumetzagako inguru eder horretan. Ea datorren urterako, danon alkarulertzeagaz, guztion onerako ekitaldi batzuk antolatuten doguzan eta, batez be, hain herrikoia dan jai horren onerako.

BAKIOKO EUSKEREAA - VII

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi behar dan: “egia da, hartu dozuna”
- Bakion zelan esaten dan: “(egidxe da, artu'sune)”

-NA (osogarrizkoa)

Bizkaierazko joskerearen atzizkia dogu. Bakioko euskeran bizi-bizirik dogun atzizkia da. Bertoko euskaldunek sarri, ondo eta zehatz erabilten dabe. Herriak, bada, balio sozial handia eta garrantzitsua emoten deutso -NA atzizkiari. Zoritxarrez, gaurko gazte-umeen artean ia guztiz galduta dago, horren ordez -LA egiten dabela. Esan behar da, ganera, BATUAZ be era honetara erabili beharko litzakela atzizki hau.

Menpeko esaldi osogarrietan erabilten dogu, adierazotakoa ziurra edo jakina dala esateko. Baieztapenak adierazoteko (**EZIN UKATU, ARGI DAGO,...**) zein egitasun eta autorpenak egiteko (**EGIA DA, IKUSTEN DOT, BADAKIT,...**). Lantzean behinean be, jakiten dana beste berbaren batez indartuten dogu (**DANOK DAKIGU, ONDO DAKIZU,...**). Erabilera hori ondo ulertu eta egiteko berbadunaren ikuspegiaren joko garrantzitsuaz konturatu behar dogu. Haren eskuetan dago-eta eabaztea ziurtasun edo jakintasun mailea zenbateraginokoa izango dan, eta, halan bada, atzizki hori erabiliko dauan ala ez.

Atzizki hori, beste batzuen artean, hurrengo aditzakaz erabilten da:

AGIRIAN EGON - EZ AHAZTU - ARGI EGON - AUTORTU - BISTAN EGON - DUDARIK EZ EGON - EGIA IZAN - GARBI EGON - GOGORATU - GUZURRA IZAN - IGARRI - JAKIN - KONTURATU - LASTIMEA IZAN - SEGURU EGON - SINISTU - UKATU -...

- Gauza agiria da, diru asko galdu eba**NA**.
(*geuse agiridxe da, diru asko galdu seuena*)
- Ez da ahaztu behar, hori halantxe esan dabe**NA**.
(*esta astu bier, ori alantxe esan deuriena*).
- Argi dago txarto dagoa**NA**, ikusi besterik ez dago eta.
(*argi dau txarto dauena, ikusi besterik estau te*)
- Guzurretan ibili gurago, okerkerietan dabilza**NA** autortu baino.
(*gusurretan ibilli gurau, okerkeridxetan dabisena autortu baño*).

- Bistan dago ez nekiaNA, agozabalik lotu nintzan eta.
(*bisten dau enekidxena, agozabalik lotu nitzen da*)
- Dударик ez dago, joan egin ziraNA.
(*dударик estau, dxoan eiñ sirena*)
- Egia da, atzo zarata egiten ibili zaNA.
(*egidxe da, atzo sarata eitxen ibil sana*)
- Jatunak garaNA, argi ta garbi dago.
(*dxatunek garana, argi txe garbi dau*)
- Ez dozu gogoratuten sasoiz joan zaNA, ala?
(*estosu gogoratuten sasois dxoan sana, ala?*)
- Guzurra da, alkatea han egon zaNA.
(*gusurre da, alkatie an on sana*)
- Ikusi dodaneko, igarri deutsot aitaren anterea daukaNA.
(*ikusi doteneko, igerri'tzet aitxen anterie dekona*)
- Harek ondo daki, batetik bestera zabilzaNA.
(*arek ondo daki, batetik bestera sabisena*)
- Konturatuko dira, aurton zereginik ez daukeNA.
(*konturatuko dires, aurton seregiñik estekiena*)
- Lastimea gaztetxu zaraNA, zeure buruari halantxe kalte egiteko.
(*lastimie gastetxu sarana, seure buruari alantxe kalte eitxeko*)
- Seguru nago, ez daNA oraindikarren etorri.
(*seguru nau, estana ondiñokarren etorri*)
- Sinisten dot, hori egiteko gauza ez zaraNA.
(*siñistan dot, ori eitxeko gause esarana*)
- Ezin leiteke ukatu, aitaren semea daNA.
(*esin lei ukatu, aitxen semie dana*)

Badagoz beste batzuk be -NA atzizkia eskatuten dabenak:
ASKO EZ DA - ASTE BETE DA - BADIRA BOST URTE - BAI! - BENETAN! - BIDER - ESKERRAK - HORI(XE)! - JAKINA! - URTEAK DIRA - ...

- Asko ez da, hori berberori esan ebaNA.
(*asko esta, ori berberori esan seuena*)
- Aste bete da, etxetik kanpo bizi daNA.
(*aste bete da, etzetik kanpo bisi dana*)
- Badira bost urte, ikasten amaitu nebaNA.
(*badires bost urte, ikisten amaitxu neuena*)
- Bai, okotza daukaNA horrek!
(*bai, okotza dekona orrek!*)
- Benetan, barrabaskeria egin eustaNA!
(*benetan, barrabaskeridxe eiñ ostena!*)
- Lehenengo bider da, hori egin ebaNA.
(*lelango bider de, ori eiñ seuena*)
- Eskerrak bizkor etorri zareeNA, osterantzean...
(*eskerrak biskor etor sariena, ostantzien...*)
- Etorriko zara? - Horixe, joango nazaNA!
(*etorko sara? - orixe, dxoango nasana!*)
- Jakina, bihar egingo doguNA!
(*dxakiñe, bidxer eingo dune!*)
- Urteak dira, hemetik ez zaraNA agiri.
(*urtiek dires, emetik esarana agiri*)

Iniaki MARTIARTU



GURASOEN ALKARTEAGAZ BERBETAN

Gure herriko taldeak hobeto ezagutzeko egiten doguzan alkarrizketa txoko honetan, oraingoan, Urkitza Ikastetxeko Gurasoen Alkarteari tokatu jako. Holan bada, Alkarteko lehendakari dan Maria Jesus Muruagarengana joan gara eta honako hau izan da emoitza.

TX: Azaldu zeinke gitxi gorabehera zelan zagozen egituratuta edo antolatuta?

MJ: Ba, eskolako guraso guztiak gara alkarteko partaide eta junta edo batzorde bat daukagu. Kontseilu eskolarrean dagoz alkarreak aukeratutako guraso batzuk eta horreexek eta beste borondatezko batzuk dira batzordea osotuten dabenak.

TX: Zeintzuk dira zeuon eginkizunik nagusienak?

MJ: Orain jantokiko gestinoa eroatea da gure lanik garrantzitsuen. Horretan diru asko doaku. Gero, umeentzako eskolatik kanpoko kirola antolatzea be gure beharra da, hau da, monitoreak topau eta abar. Dirua batzeko egiten diran Gabonetako loteria eta jaietako txosnea be hor dagoz. Eta oraintsu arte psikologo pribatua euki izan dogu eta horrek be hainbat diru eroaten eban. Orain, psikologoa Dele-garizatik dator arazorik dagoanean, baina lehen baino askoz be gitxiagotan. Baina, badinot, jantokia da dirurik gehien eroaten deuskuna. Beraz, danatarako dirurik ez.

TX: Zelangoa da gurasoen partaidetza neurria? Ba dago borondaterik?

MJ: Esan behar da, lehen partaidetza handiagoa zala gaur egun baino. Bertoko jendeak lotura handiagoa izaten dau

eskoleagaz. Kanpotik datozen guraso barriek ez dauke hainbesteko loturarik eskolako esparru horregaz. Askok, euren lanagaitik ezin dabelako laguntasun handirik eskaini eta beste batzuk, uste dabelako eurekaz ez doazela gorabehera horreek.


TX: Zelan ikusten dozu Bakioko eskolearentzat etorkizuna?

MJ: Ba, leku guztietan gertatzen dan lez, gero eta ume gitxiago dagoana da arazorik larriena. Momentu honetan, berrogeitazazpi ume dagoz. Baina, beharbada, zelan jende gehiago Bakiara biziten etorteko dan ba, gorantza egingo dau.

TX: Ze beharrizan edo hobekuntza ikusten dozuz ezinbesteko eskolearen inguruan?

MJ: Eskolearen kanpoko irudia hobeto jagon beharko litzake. Sarritan, udalari eskinez etorten dira hobekuntzak eta horrek berezkoa izan beharko leuke. Beste aldetik, herriak kontutan euki daiazala eskolearen lana eta herrigintzan egiten dauan beharra. Berba bitan, eskoleak daukan garrantzia emotea eskoleari. Este beste alde batetik be, ilusino handiagoa eskatuko neuskie gurasoei, ze jende barriak beti dakarz haize eta asmo barriak holango alkartebaten.

Unai BEITIA



Bakioko Futbol taldeko barriak

Ez dabil lar ondo, ez, Bakioko Futbol Taldea. Zemendiaren 7an Bakioko Gati-karen aurka jokaturako partiduan bat eta bapez galdu eban. Momentu honetan taldea 14. postuan dago eta jokaturako lau partiduetarik bakarra irabazi dau. Ez etsi, aurrera egin behar da eta!

Bakioko Abesbatza

Oporraldia igarota eta irailean urteroko txangoa egin ostean, abestaldi barriari hasikera egin deutsoe abesbatzakoek. Horretarako, urriaren 31an egingo dan Euskerearen Jaian abestuko daben ekitaldia prestetan dabilz. Geroago baten, abenduaren 4an edo, Castro Urdialesera joango dira, han abesteko asmotan. Castroko abesbatza, oster, beluagoko baten etorriko da Bakiara abestuten. Beste alde batetik, Gabonetan ohiko kontzertua opetsiko deuskue ume abeslariak batera. Inork abesbatzako gura izango baleu izan, eurakaine joaterik baino ez leuke, abeslariak behar dabez eta.

ITXAS-ALDERI BURUZ

Joandako hilaren 26an Larrauriko jaietan egin eban dantza ekitaldia, urtero lez. Urriaren 30ean Busturialdeko Dantzari Nagusien Jaian be badabe dantzan egitekoa. Mundakan euki be. Ahaztu barik, Bakioko, Euskerearen Egunean be hor izango dirana. Barriro be hasi dabez ensaioak, baita alkartrukeak prestetan be. Urtero lez, gonbideta zagoze, gura dozuen guztiok, ITXAS-ALDE taldera etortera, dantzari edo musikari moduan esku hartuteko.

Euskadiko Pala Laburreko Txapelketea

Arteragoko TXIRRITXOLAn errakuntza nabarmena egin genduan gai hau dala eta ez dala. Txapelketa horretako finalean Erburu II.-ak irabazi eutson Arrosagarairi hiru eta bateko emoitzagaz. Esan beharra dago be, txapelketa horren berezi-tasunetariko bat hamabi tantuko hiru partidutxutan olgetea dala eta ez lehengo era zaharrean, hogeita hamabost tantutara. Irakurle zintzoak parkatuko deuskulakoan, ahor ba zuzenduta.

USO ZURIA (euskal ipuin zaharra)

Munduan beste asko lez, Atxondo baserri zuri, txiki, politean, senar-emazte ezkonbarriak oso zorionsu bizi ei ziran.

Etxekoandra gazteak umetxu bat izan eban, eguzkia bera baino ederragoa.

Egun baten, etxekoandrea, bere umetxua hartuta, landara joan zan. Eta bertan zugazpean jesarrita egoala, atso bat etorri jakon eta holan esan eutson:

- «Etxekoandra gazte, polita. Zure ule beilegi ederrek urregorritzkoak dirala emoten dabe. Uleak orraztea gura dozu?»

Eta etxekoandreak ezer txarrik susmatu barik, baietz erantzun eutson.

Baina atso zahar, itsusia, sorgina zan eta uleak orraztuten hasi jakonean, etxekoandra gazteari buruan orratz burubaltza sartu eutson. Andra gaztea, bat-batean, uso zuri bihurtu zan eta hegaz basoko bidea hartu eban.

Orduan, atso sorgin dongea, umetxua hartuta, baserrira joan zan eta benetako etxekoandra izan balitz lez biziten lotu zan han.

Etxekojaunak, ikusi ebanean, zurtz eginda itandu eutson:

- «Baina, emazte maitea, zelan zahartu zara horrenbeste egun batetik bestera?»

-«Sorgin donge batek, bere sorginkeriez holan jarri nau», erantzun eutson atso zahar, guzurtiak.

Harrezkero, Atxondo baserri ondora, egunero, uso zuri bat etorten zan eta, hara ta hona beti, etxe inguruan ibiltan zan.

Atso sorginak uso ha ezin begi onez ikusi eta behin baten etxekojaunari holan eskatu eutson:

- «Bialdu eizu hemendik uso doilor hori! Zer gura dau, bada, hegazti horrek hemen?»

Halako baten, nagusiak uso zuria sareetan harrapatu eban bizirik, eta usotxua eskuaz maitero laztanduten hasi zan. Buruan musua emon eutsonean, orratz burubaltza buruan josita eukala ikusi eta kendu egin eutson.

Une haretan bertan, basoko uso zuria, lehengo etxekoandra gazte, eder izatera bihurtu zan, eta etxekojaunak bere egiazko emazte maite, kutuna zana ezagutu eban.

Ha, bai, izan zala senar-emazte bien poza ta atsegina!

Andra gazteak bere senarrari sorgin dongeak egindako txarkeria esan eutson, eta etxekojaunak sorgin doilorra erre egin eban.

Handik aurrera senar-emazte biak, Atxondo baserri zuri, politean, oso pozik eta zorionsu bizi ei ziran.

Halan bazan, ez bazan, ez niri esan!

(herri ipuina)

Iniaki MARTIARTU



Berbalapikoa

landa= solo, larra.

beilegi= hori (margoa). (Bakioko berbea)


itsusi= motz, ezain.

bat-batean= behingoan, braustakoan.

zurtz eginda= harrirituta. (Bakioko esakerea)

doilor= ziztrin, zatar.

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA



NGUNGAREN ABENTURAK, Artur Pestana «Pepetela»

Burrukalari txiki honen abenturak Angolan jazoten dira. Egileak amai-eran dinoanez, in-juztizia guztiakaz amaitu gura dauan gerrilaria da Ngunga. Beharbada, gure barruko tokiren baten gordeko dogu Ngunga txikiren bat. Ganera, Angolako berba batzuk ikasteko aukerea izango dogu.

• • •



GURE BARRIOA 1975, Xabier Mendiguren.

Mendigurenek hamar urte ebazalako sasoi gogoratu dau eta herri industrial bateko auzune-ko mutikoen munda birreraiki dau, bere pobrean ederra, bere arruntean fantasiaz bete. Dana dala, umezaroaren idealizazio guztietatik asago dabil egilea: samurak besteko ankerrak dira umeen jolasak, goxoak besteko errukibakoak haren misterio eta amesak.

• • •



BIDAIA SENTIMENTALA FRANTZIA eta ITALIAN ZEHAR, Laurence Sterne.

Egileak 1765ean Frantzia eta Italiarako bidari ekin eutson. Liburu horren frutua da. Hemen irakurleak ez dau aurkituko eraikuntza ospetsuen deskripzinorik, protagonista beraren bidean topetan dauan jendearen izakera eta barru zirrarak arakutzen dabezan begirada barrukoia baino.

Liburu honeek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazuz. Erdi gurera!

MUSIKEA

«NO ME HABLES» - Señor no

Musikaren txokoa izenagaz zabaltzen dogun atal barri honetan **SEÑOR NO**-ren hirugarren diskoa, "NO ME HABLES", izango dogu aztergai.

Donostiako Buenevista auzoko talde beterrano hau, ritmo arinez eta kitarra zorrotzez osotutako disko ederragaz datorku ostabere, bere ohizko hildo jarraituz, beraz. Zeozer aitatutekotan, euren ezohikoak diran instrumentu batzuen erabilpena nabarmen-duko geunke. Holan bada, metal batzuk, (zarata tronpetak eta abar), pianoa, armonika eta neska batzuen korua be. Abestiei dagokenez, espaineraz dira gehienak, in-geleses diran hiru izan ezik, eta instrumental pare bat badago. Euren artean, aitatu beharreko diran "1999" deritxon instrumentala (armonika eta guzti) eta "Shaloney" izeneko abestia, bere erritmo gogorra eta burutik kendu ezin izango dozun leloagaz.

Beraz, "rock killer" deritxon estiloko taldeak gustoko do-
zuezanontzat disko hau beren-beregia da, "La perrera"-ren errautsetatik sortu ziranetik urte franko pasa dalako eta, horretara, esperientziadun taldeak diralako.

Amaituteko, zuzenean ikusteko aukerarik badozu, ez egin muzinik talde horrerri, zuzenean estatuko ederrenetariko bat ikusiko dozulako, ziur!!!

TALDEA: SEÑOR NO

Lpa: NO ME HABLES

ZIGILUA: NO TOMORROW



Etor Duoandikoetxea

FILMA

«EYES WIDE SHUT»



Tom Cruise eta Nicole Kidman senar-emazteak pertsonai nagusitzat dauazan film hori nahiko interesgarria da eta ez da alperrik 18 urtetik gorakoentzako izango. Filma nahiko «erotikoa» bada be, hainbat pertsona biluzik agertuten da eta, neskak batez be, oso argumentu interesgarria dauka. Holango prentsa emoten deutoen film batetik ez da normalean gauza handirik itxaroten, baina ikustea aholkatuten deusuet, oso istorio interesgarria dago-eta halango «azal faltsuaren» azpian.

Anartz ORMAZA

Esherrik asko etorteagaitik!



KAFETEGIA

Benta Alde, 75
Bekabarri
Tfnoa.: 94 619 40 59

*Sabin'en
Jatetxea*

Benta Alde, 72
Estibaliz
Tfnoa.: 94 619 40 41

48130 BAKIO

datozanak

Udagaien-negu honeetan badago zer ikusirik Euskal Herrian. Ez zaitezte etxean kikilduta egon, urten, ondoan dakartsueguzan ekitaldiotara joan zeintekete eta.

Z E M E N D I A N

- Udazkeneko Antzerki Zikloa,**
urriaren 12tik abenduaren 19ra, Iruñean.
- Udazkeneko Bira,**
urriaren 9tik abenduaren 11ra, Nafarroan zehar.
- Nazinoarteko Txotxongilo Jaialdia,**
zemendiaren 10etik 14ra, Bilbon.
- Udazkeneko Kontzertuak,**
zemendiaren 16tik 19ra, Getxon.
- Zirimolan,**
zemendiaren 20tik abenduaren 5era, Azkaine, Bera, Sara eta Etxalarren.
- Mendeburua Kantuz,**
zemendiaren 20an eta 21ean, Ordizian eta Urruñan.
- Bilboko Nazinoarteko Zinema Jaialdia,**
zemendiaren 22tik 27ra, Bilbon.
- Nafarroako Bideo Jaialdia,**
zemendiaren 23tik 27ra, Iruñean.

A B E N D U A N

- Euskerearen Eguna,**
abenduaren 3an, Bilbon.
- Euskal Zinema Jaialdia,**
abenduaren 3tik 4ra, Lekeition.
- Euskal Liburuen eta Diskoen Azokea,**
abenduaren 3tik 8ra, Durangon.
- Tolosako Artisautza Azokea,**
abenduaren 11tik 12ra, Tolosan.
- Gospel Jaialdia,**
abenduaren 16tik 19ra, Donostian.
- Artisautza Azokea,**
abenduaren 18tik urtarrilaren 6ra, Bilbon.
- Eskulangintza Azokea,**
abenduaren 18tik urtarrilaren 5era, Donostian.
- Santo Tomas Azokea,**
abenduaren 21ean, Bilbon.
- Olentzeroa,**
abenduaren 24an, Bakion.

barregaiak

EGUZKIA

- Europa iparraldeko herrialde hotz eta ilun baten, turista batek herriko mutiko bateri honan itaundu eutson:
- Txo, mutiko, askotan ikusten dozue eguzkia hemen?
 - Ez dakit, jauna. Hamalau urteko baino ez naz eta.

SUKALDARI ONA

- Ezkondu garan ezkerro -dinotso emazte barriak-, orain jakingo dozu zer dan sukaldari ona.
- Ederto! Baina ez nekian horren trebe zindudazanik.
- Ez dot niri buruz esan, nire ama aitatu gura izan dot. Etorri be, geugaz bizi izatera etorriko da eta.

MIRARIA

- Hau lotsa! Dinozuzan berba zantar horreek aitak entzungo baleu, zer esango leuke berak, bada?
- Mirari bat dala esango leuke, hormea bestean gor dago eta!


IKASTETXEAN

- Ño, Klare, basoan bizi diran lau pizti esan eistazana.
- Lau tximino, andereño.


badaezpadako jakingarriak

	telefono zkia.	fax zkia.
Udaletxea	94 618 40 01	94 618 31 18
Turismo Bulegoa	94 619 33 95	94 619 31 18
Kultur Etxea	94 619 33 69	94 619 31 18
Osakidetza (osagilea)	94 619 42 07	
Udaltzaingoa	929 435 666	94 619 31 18
SOS Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak)	112	
Taxia (Carlos Uriarte)	94 619 41 79	
Taxia (Bilbao Ugalde)	94 619 42 50	
Botikea	94 619 44 72	
Autobusa (Bizkaibus)	94 454 10 98/05 44	
Autobusa (Túñez-Sánchez)	94 688 31 71/03 21	

ezetz jakin!




7 ezbardintasun



Nondik nora joan behar dau margolariak?





BOLIBAR

Jatetxea

Benta Alde, 180
 Tfnoak.: 94 619 4141
 94 619 30 00
 48130 BAKIO




EROSLE
Etorkizuna!

Bakio bidea, 50
 Tfnoa.: 94 619 49 00
 48130 BAKIO

ASKADA

KAFETEGIA

Benta Alde, 70
 Tfnoa.: 94 619 4006
 48130 BAKIO



ARIMUNE

OSTATUA

Benta Alde, 95
 Tfnoa.: 94 619 4022
 48130 BAKIO



GAZTELU-BEGI

JATETXEA - OSTATUA

MAKAILOA - ATUNA - ITSASKIAK

San Pelaio Alde, 86
 Tfnoa.: 94 619 4924
 48130 BAKIO



atzera begira

KRISTAU IRAKASPENERAKO ANAIK 1.903AN ETORRI ZIRAN BAKIORA ETA 1.936KO GUDATEAGAZ BATERA HERRIA ITZI. BITARTE HARETAN HERRIKO MUTIL ASKOREN IRAKASKUNTZEA EUREN ESKUETAN EGON ZAN. GUDEAREN OSTEAN, BARRIZ, ETXE-PINTOKO LEHENENGO IRAKASLE LAIKOA HERRIKO SEMEA ZAN ARTZAKO ON PAULINO URIARTE IZAN ZAN. MAISU BAKARRA. BERAREN ARDURAPEAN TXIKIEN ESKOLEA ETA HANDIEN ESKOLEA EGOZAN. GUZTIRA 4 EDO 5 TALDE. MAISU BAKARRA IZANKERAN ETA DANETARA HELDU EZINIK EBILELA, LANTZEAN BEHIN, LAGUNTZAILEAK ERABILTEN EBAZAN, ESATERAKO: BASARTEKO INAZIO OLASKOAGA ETA BEKOERROTAKO RUPERTO UGALDE. IKASLE BAKOTXEKO HILEAN PEZETA BAT ORDAINDUTEN EUTSOEN. ON PAULINOK ERDERAZ IRAKASTEN EBAN: GEOGRAFIA, HIZKUNTZA ESPAINOLA, ... UMEEK, OSTERA, TXINTIK ULERTU EZ ARREN BE, HORI GUZTIORI BURUZ BE BURUZ IKASI BEHAR IZATEN EBEN. BAINA, MATEMATIKEA, LEBA HANDIKOTZAT HARTUTA EDO, ETA DANOK ULERTU EIEN, EUSKERAZ IRAKASTEN EUTSEN. ORDUKO IKASLEEK ESANDA, ON PAULINOGAZKO HARTUEMONAK SANO ONAK IZAN EI ZIRAN IKASLE ZEIN HERRITARREN ALDETIK. HORI HOLAN ZANA ERAKUSTEKO, ORAIN DALA 30 BAT URTE INGURU OMENALDI SENTIKORRA EGIN EUTSOEN HERRIAN, LONGARAIN JAN EBEN BAZKARIA ETA BERTAN ERLOIU BAT EMON EKION.

ARGAZKIA ETXE-PINTOKO ESKOLAN ATARATA DAGO. 1941-1942KO IKASTURTEKOA EI DA. GOITIK BEHERA ETA EZKERRETATIK ESKOIRA HONEEEXEK DOGUZ:

1. ERRENKADAN: FELIX URIARTE (ZAITUTXU) - IÑAKI ORMAZA (JAUREGI) - KLAUDIO GAUBEKA (INTXAURRAGA) - ADOLFO ELGEZABAL (GARAI ETXE) - SABINO ZABALA (BASIGO) - GOTZON LONGARAI (LONGARAI) - JESUS RENTERIA (TORREZAR) - PABLO AGIRRE (URKITZAURRE) - PEDRO URIARTE (ERRENTERIA) - MARKOS ORMAZA (BARTUREN BEKOA) - ON PAULINO URIARTE (ARTZA).

2. ERRENKADAN: JULIAN UGALDE (GARAI) - GALO BILBAO (KITROIENE) - INAZIO AGIRRE (URKITZAURRE) - JOSE URIARTE (IBERRETXE) - JUAN MARI ABIO (ARMURUA) - JESUS BILBAO (GORRONDONA) - JOSE MARI AGIRRE (ORTUBE) - JOSU URRUTIA (IBARZABAL) - MANU LOPATEGI (ZAITUA) - JULIAN AGIRRE (ELEXPURU) - JUAN MARI MURUAGA (ZAITUA) - PEDRO GOITIA (ELEXPURU) - PEDRO ZABALONDO (LORREA).

3. ERRENKADAN: PEDRO MANUEL ORAINDI (BEITI) - JESUS MARI BARTUREN (GOIKOLEA) - PATXO ZUMARRAGA (KURTZIKENE) - PABLO ETXEANDIA (AZERETXOGOITI) - ANTONIO ETXEBARRIA (GOITISOLO) - LUIS SIERRA (IBERRETXE) - JULIAN INTXAUSTI (MAKUENA) - TXOMIN GAUBEKA (INTXAURRAGA) - JUAN JOSE BILBAO (UGALDETXU) - IÑAKI MINTEGI (AMETZA).

4. ERRENKADAN: ALBARO ANTUXTEGI (ORTUBE) - JOSE RAMON SAN PELAI (EGIA ETXEBARRI) - ALBERTO ZABALA (BASIGO) - JOSE MARI URIARTE (BARTUREN GOIKOA) - MIGEL ORMAZA (OTXATEGI) - MIGEL BILBAO (AURREKOETXE) - JOSE MARI ORMAZA (BARTUREN BEKOA) - MANUEL ABIO (BASIGO) - ANIS AGINAGA (BALANDA) - ESTEBAN GARAI (GARAI ETXE).

(ARGAZKIA: JESUS BILBAOK ITZITA)